

## JARDUERA-PLANA (2. BERTSIOA)

(

# Teknologia Elektroaren Oinarriak

Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua  
Industria Elektronikoren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua  
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua

2020/04/20

Irakasgaiaren koordinatzailea:  
Idoia Manero Chinchetru

"Teknologia Elektroaren Oinarriak" (kodea: 25980) ikasturte osoko irakasgaia da.

Jarduera-plan hau irakaskuntza-gidaren zati bateko aldaketa bat da, COVID-19 pandemiak sortutako egoerara egokitzearren.

## **EDUKIEN INDIZEA**

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko Deialdia: Orientazioak eta Uko Egitea
5. Ezohiko Deialdia: Orientazioak eta Uko Egitea

## 1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Hurrengo eduki teoriko-praktikoak hirugarren blokearen azkenengo zatiari dagozkie, makina elektriko birakariak, 22. astetik aurrera emateko.

### **Makina elektriko birakariak**

#### Indukzio-makina trifasikoa

- Sarrera
- Eraikuntza-alderdiak
- Funtzionamenduaren oinarriak
- Zirkuitu baliokidea.
- Saiakuntza bereizgarriak
- Potentzia-balantzea
- Pare / abiadura ezaugarriak
- Sorgailu gisako funtzionamendua
- Balaztaketa
- Abioa
- Abiaduraren erregulazioa

## 2. METODOLOGIA

Irakasgaia teoriako klaseak eta laborategiko praktiken bitartez eman da ikasturtean zehar. Bi jarduera horiek urrutiko moduan ematen jarraituko dira.

Teoriako klaseak Blackboard Collaborate-ren bidez emango dira, audioa, fitxategiak eta aplikazioak partekatuz. Dokumentu honen lehenengo atalean aurkeztu diren edukiak garatuko dira. eGela plataformaren bidez entregatuko zaio ikasleari azalpenak jarraitu ahal izateko beharrezkoa den dokumentazioa.

Laborategiko praktika presentzialak egiteko ezinaren aurrean, eGela plataforma eta BB Collaborate-ren bitartez jorratuko dira praktiken edukiak. Ebaluazioa praktikako emaitzei eta ondorioei buruzko galdetegi batzuen bidez egingo da.

### 3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Ebaluazioa irakaskuntza-gidan deskribatzen den moduan mantenduko da.

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

Kalifikazio-tresnak eta ehunekoak:

- Laborategiko praktikak, eta horiei dagozkien txostenak eta galdetegiak (% 25)
- Entregagaiak eta proba idatziak (% 75)

### 4. OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio jarraitua

Ebaluazio jarraituaren sisteman, ebaluazioa 3 bloketan banatuta dago:

1. Zirkuitu elektrikoak. Azken kalifikazioaren % 35.
2. Instalazio elektrikoak. Azken kalifikazioaren % 30.
3. Makina elektrikoak. Azken kalifikazioaren % 35.

Bloke bakoitzak eduki teoriko-praktikoak eta laborategiko praktikak ditu. Beren pisuak % 75-ekoa eta % 25-ekoa dira, hurrenez hurren.

Kalifikazio-bloke bakoitza gutxienez 5eko kalifikazioarekin gainditu beharko du ikasleak.

**Ebaluazio jarraituko urrutiko probak:** Ebaluazio jarraituko probaren bat modu presentzialean ezin bada egin, beharrezko ebaluazio-ekintzak urrunetik egingo dira eGela plataforma eta BlackBoard Collaborate-ren bidez. Proba horiek galdetegiak eta ariketen bitartez gauzatuko dira.

Ebaluazio jarraitua gainditzeko bloke guztiak gainditu beharko dira, eta, orduan, nota hiru kalifikazio-blokeen batezbesteko haztatua izango da. Horrela ez bada, ikaslea suspendituta egongo da eta bere nota batezbesteko haztatua izango da. Nota horren balio maximoa 4,5 izango da.

Ikastaroan zehar eta bloke bakoitzean, gainditutako laborategi-nota gordeko da.

## Azken ebaluazioa

Azken ebaluazioaren ohiko probak ebaluazio jarraituaren egitura eta pisu berberak edukiko ditu.

**Laborategiko praktiken urrutiko azken ebaluazioa** (% 25): Laborategiko azken ebaluazioa modu presentzian ezin bada egin, eGela plataforma eta BlackBoard Collaborate-ren bidez egingo da. Proba hori praktikako emaitza eta ondorioei buruzko kalkulu eta galdetegi bitartez gauzatuko da.

**Eduki teoriko-praktikoen urrutiko azken ebaluazioa** (% 75): Eduki teoriko-praktikoen azken ebaluazioa modu presentzian ezin bada egin, eGela plataforma eta BlackBoard Collaborate-ren bidez egingo da. Proba hori galdetegi eta proba idatzien bitartez, ariketak barne, gauzatuko da.

Azken ebaluazioa gainditzeko 3 blokeetako batezbesteko haztatua gutxienez 5 izan behar du. Horrela ez bada, ikaslea suspendituta egongo da eta bere nota batezbesteko haztatua izango da. Nota horren balio maximoa 4,5 izango da.

**Ohiko deialdiari uko egitea:** Ohiko deialdiaren azterketaren data ofizialera ez aurkezteak deialdiari uko egite automatikoa dakar eta kalifikazioa "ez aurkeztua" izango da.

## **5. EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ohiko deialdian irakasgaia gainditu ez duen ikasleak, edozein ebaluazio-sistema jarraitu duelarik, ezohiko deialdiaren azken ebaluazio-probaren azterketa eta ekintzetara aurkezteko eskubidea du.

Azken ebaluazioaren ohiko probak ebaluazio jarraituaren egitura eta pisu berberak edukiko ditu.

**Ezohiko deialdearen urrutiko azken proba:** Azken proba modu presentzian ezin bada egin, eGela plataforma eta BlackBoard Collaborate-ren bidez egingo dira urrutiko moduan, ohiko deialdiaren atalean deskribatu den modu berean.

**Ezohiko deialdiari uko egitea:** Ezohiko deialdiaren azterketaren data ofizialera ez aurkezteak deialdiari uko egite automatikoa dakar eta kalifikazioa "ez aurkeztua" izango da.